



Ekitoltzean, zankoak lüzatürrik, Charliereki ez ginen egiazki mintzatzzen. Gogoan kurritzen zeizgün pentsamentüak trukatzen gñütüan, besteak, bere aldetik kontatzen züana sobera kontütan hartü gabe. Momentü goxoak ziren, zointan, kafe bat edanez, denbora igaraiten üzten gñüan. Erran zeitalarik bere txakürra ehoarazi behar züala, harriarazi nündüan bena ez hainbeste.

Gaixki zahartzen den txakür bat beti triste da ikustea bena hamabost urteetarik landa honartü behar da egün batetik bestealats hilen dela.

- Entelegatzen dük, ez nüan beltzkor balitz bezala igaranarazten ahal.
- Egia, "Labrador" batentzat ez dela bere sortzeko kolorea, bena zoin eritarzün züan?
- Ez da hori arrazua, ez zen txakür beltzkor bat, besterik deüs.
- Redios ! Gatüentzat bezala da ordüan ?
- Bai, bardin.

Gatüentzat jakinean nintzan. Igaran hilabetea, nüan gatüaz, berezi behar üken nüan. Xuri beltzez titatürrik sortzea, ideia txarra üken züan. Gatü arrunt bat zen.

Egia da sobera gatü bazela eta egarezinezko zela eta ere Estatüko berezilari edo zientifikoen arabera, arreen begiratzea hobeki zela. Beltzkorak baizik. Ikertze gñiziek probatzen züen, hiriko biziari hobeki egokitzen zirela, hüme gñtiago egiten züela eta gñtiago jaten züela. Zer nahi den, gatü bat gatü bat da eta nolabait arrenküra konpontü behar zelakoz, beltzkor ez ziren gatüen ehaiteko legea honartü behar zen. Mikeletek - hiriko milizianoek - arbotzoin pozu edo *arsenic* bolatxoak dohainik banatzen zütüen. Gatüen janariari nahasiz, bertan hiltzen ziren.

Ene bihotza tinkatü zen bena bertan ahazten dügü.

Ez dakit sobera zergatik bena txakürren ehaitea amiñi bat harriarazi nündüan. Mentüraz txakürra lodiago beita, ala, erranik den bezala, gizonaren lagüna delakoz. Dena den, Charliek, bere txakürren ehaitea, ene gatüarentzat egin nüan bezain laxüki, aipatü züan eta balinba arrazu züan.

Sobera bihotzkeriak ez dü deüsetara eramaiten eta txakürrentako segür ere egia da, arreak indartsüago direla. Ez gñüan gaüza hanitx algarri erraiteko, berezi ginen bena sendipen bitxi bateki. Ez bagünüan algarri oro erran bezala. Ez sobera gustüan hots !.

Egün zombait berantago, nik neion Charlieri jakinerazi hiriko Egünkaria ez zela haboro argialatürrik izanen.

Üzküztopa erori zen: goizoroz bere kafe-eznea hartzen züanean, idekitzen züan egünkaria !

- Ito dira ? Grebak ? errekarat joan dira ?

- Ez, ez, txaküren aferaren jarraikia da.
- Arreenak?
- Bai, beti. Egün bat ere ez züen igaraiten lege horri oldartü gabe. Berezilarien ikerraldien ondorioak düdan ezarten zütüen ere. Irakurleek ez zakien haboro zer pentsatü behar zen, zombait ere beren txakürren gordetzen hasi ziren !.
- Süareki sobera txotakatüz...
- Erraiten dükan bezala, azkenean Egünkaria debekatürrik izan da.
- Alajinkoa, eta *tiércé* zaldi joküarentako nola eginen dügü?
- He be, ene lagüna, hire argitarzünak *Berri arreak* egünkarian txerkatü beharko dütük. Orai ez da besterik. Gisala, lasterraldi eta kirolarentako ontsa da.

Besteek mügak gaintitü zütüelakoz, hirian egünkari bat behar zen; alabadere, ez ginen berririk gabe egoiten ahal. Egün hortan, Charliereki kafe bat hartü nüan, bena *Berri arreak* egünkariaren irakurle baten bilakatzeak arrenkürazten nündüan. Ata, ene üngürüko ostatüko jenteeke beren bizia lehen bezala jarraikitzen züen: segür ere ez nüan griñatü beharrik.

Ondotik, libürütegiko libürüen aldi izan zen, hixtoria ez hain argia orano.

Herriko Egünkaria bezala, ber diharü emaile taldeeko kide ziren argialetxeak, epaibidean ezarririk izan ziren eta beren libürüak libürütegietako tauletetan debekatürrik ziren. Egia da argialatzen zütüen idazkietan, libürükal behin pürü *gatü* ala *txakür* hitza irakurten ahal zela eta ez beti *arrea* ala *beltzkor* izenlagünareki. Ata segür ere bazakien.



- Ez da harritzeko -zion Charliek- entelegatzen dük, legea saihesten dezagün et gatü eta sagüaren joküan ari gitean herridiak honar baleza deüs ez leikeo irabaz. *Arrea*. - gehitü züan bere üngürüan so egitez - *sagü arrea* - gure algarrizketa entzuna izan balitz bezala.

Arrea ala *beltzkor*, erranaldien ürrentzetan ala hitzetarik landa arraheinki ezartea üsaintxa hartü gñüan. Hastapenean, *pastis arrea* baten galtegitza bitxi egiten zeizgün eta gero, dena den, hizkuntza, aldatzeko egin zen eta erranaldi gñizietan, *arrea* gehitzea,

gure Herrian egiten dügun bezala alajinkoa ala koño erraitea beno ez zen hüilanik ere bitxiago. Ontsa ikusiak ginen eta bakean üzten gñtügen pürü.

Tiércé zaldi joküaren irabaztea ere kausitü gñüan. Oh, ez handi bat bena halerik ere, irabazi gñüan gure lehen *tiércé* arrea zen. Araubide berrien bürühausten honartzea lagüntü gñtügen.

Egün batez, oritzen niz, Charlieri erran neion ene etxetik igaraitea zanko baluko koparen finalaren ikusteko. Erriz

leherregin gñüan. Eta horra, nola txakür bateki jin zen !.

Izigarri eijerra zen ; büztan pñntatik müttürealat, beltz-
kor zen, begiak gaztaina kolore.



- I k u s t e n d ü k ,
azkenekoz, bestea beno
maitagarriago dela eta
ezinago ontsa sinesten naü.
Labrador beltz haren
ehaiteaz ez nñan lazgarrikeria
bat egin beharrik.

Hau erran bezain sarri, bere
txakürra besalkiaren pean,
txanpaz eta kurrinkaz sartü
zen. Eta txanpaz eta txanpaz

eta nahiz eta beltzkor izan, ez deio ihori sinesten, ez
nausiari eta ez ihori ! Eta bat batean, Charliek entelegatü
zñan.

- Ez, hik ere ?
- Eta bai, ikusiko dük.

Eta ber mementoan, gezi bat bezain zale ene gatü berria
jauzi zen leihohalat igaraiteko eta kamenetean
gordatzeko. Bilok eta so arrea zñtñan gatü bat bat da.
Zer erriak egin gññütñan. Zer nolako ustegabea !

- Entelegatzen dük - erran neion- beti üken dü
gatü bat, ordñan....Hau ez dea ederra ?
- Izigarri ederra- erantzñn zeitan .

Gero telebista piztü gñññan, gure kabale beltzkorak al-
garri so atñstatzen ari zirelarik.

Ez dakit nork irabazi zñan, dakidana da pñrñ, momentü
izigarri hon bat igaran gñññala eta segñrtarzñnean sen-
ditzen ginela. Herrian, zentzü honean zoana ontsa egi-
teak baizik, bizia erresten eta indarra emaiten bazeigñn
bezala. Beltzkor edo arrea zen gizarteak alde honak e-
karten ahalko lñtñke.

Segñr da, karrika bestaldeko hoinbidean kñrñtxatü nñan
nigarrez ari zen pottikoa gogoan nñala. Bere hoinen on-
doan hurtxakür edo *caniche* xuri bat hilik zen. Be-
na, dena den, harek ere erranik izan zeiona ontsa
behatü bazñan..., txakürak ez ziren debekatñrik,
beltzkor baten txerkatzea aski zñan. Ttipiak ere edi-
reiten ahal ziren. Eta gñk bezala, legeareki bat egi-
nez, zaharra bertan ahatzeko zñan.

Eta atzo, ezinsinets, uste nñalarik bakean nintzala,
oparririk egiten ez dñen, arreez edo beltz xez jauntsi-
rik diren mikelete edo milizianoen zepoalat abant-
xñ erori nintzan. Ez nñndñen ezagñtü, añzoan berri
beitira eta bizizale gñziak ez beit dñtñe orano eza-
gñtzen.

Charlierenganat joan nintzan. Igantez, Charlieren
etxean *belote* karta jokñan ari gira. Eskñan,
garagardu "*pak*" delako bat banñan, besterik deñs.
Bizpahiru orenez, arroskilla zombait txestailñkan,
kartakan ari behar gñññan. Eta hor, ustegabe osoa:
bere egoitzaren borta zapartatü zen eta sargian bi
mikeletek, berrikara jinik ziren añzoak kurriaratzen
zñtñen.

Ailegia egin nñan gaineko selaurñalat joaitea eta
igailñareki iraitsi nintzan.

Pean jenteak, ahapetik mintzatzen ziren.

- Ata, bere txakürra egiatzko beltz kor bat zen, gñk
ontsa ikusi dügñ ;
- Bai, bena erraiten dñena da: *lehen* beltz bat zñala,
ez beltz kor bat. Beltz bat.
- Lehen ?
- Bai, lehen. Oraiko ogena da : lehen, arrea ez zen
txakür baten ñkeitea. Eta hori, ez da zaila jakitea.
Aski izan da añzoer galtegeitea.

Ürratsa lñzatü nñan. Izerdi turrusta batek ene atorra
bustitzen zñan. **Lehen** kabale baten ñkeitea ogen bat
balinbazen, mikeleten eskñpealat erorteko arriskñ handia
nñan. Ene egongiako añzo gñziak gatü xuri eta beltz bat
lehen üken nñala bazakien. **Lehen!** Holakorik, ez nñan
sekñlan pentsatñko !.

Goiz hontan, Arrea irratiak berria baieztatü dü. Segñr ere,
Charlie arrestatñrik izan diren bost ehñn jenteen artean
da. Erran dñe, kabale arre bat berriki erosi bagñññ ere, ez
gñññkeala baitezpada ikusmoldea aldatü.

" Txakür ala gatü bat, zoin nahi urteetan ükenez geroztik,
legez kuntre doa. " Elestariak jarraiki dü erranez : "
Herriko estatñari laido baten egitea da. "

Eta ondotik erran dñtññan gogoan ontsa etxeki dñtñt : -
"norberak, arabereko txakür ala gatü ez badñ üken ere,
bere familiako norbaitek, aita, anai, kñzñina, bat üken
balñ, bere bizian aldi batez baizik izanik ere, galbide
handian jarten da eta arren, arrenkñra larriak üken
detzake.

Ez dakit Charlie norat eramanik izan den.

Egia, sobera da.... Ertzokeria da. Eta nik uste beit nñan,
ene gatü arreareki bakean lñzaz izanen nintzala !
Ez da dñdarik, lehenago, txerkatzen badñe, gatü eta tx-
kür jabe franko atzamanen eta bahitñren dñe !



Gehiengo ixilaren
menpe ez da sekñlan
izan behar...

... lehen oihñan
ezabatzen da !

Gañ orotan, ez dñt lorik e-
gin. Kabaleetaz lehen legea
hedatü bezain sarri, arreak
begitan hartü behar nñtñan.
Ororen bñrñ, ene gatñña, e-
nea zen. Harren txakürra be-
zala, Charlie-entako. Behar
zen ezets erran. Bñhñrtñ ha-
boro, bena nola ? Denbora
hain zale doa ! Badira egñn
gñzietako arrenkñrak lana...
Besteek ere, amiñi bat lasai
egoiteko ez dira bñhñrtzen
ere,
ez dea hala ?

Bortan, norbait joiten ari da.
Hain goizik, ez da sekñlan
agitü ! Beldñr niz !

Kanpoan, egñna ez delakoz etxit jeikirik, goiza orano
beltz kor da.

Bena, ez ezazñela hain bortizki jo ! Horra niz !